Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

## 3/2024 TXOSTENA

**Gaia:** Udal obretako segurtasun eta osasun koordinatzailearen kontratua luzatzea

**Espediente tramitatzailea:** Urigintza, Obra eta Ingurumen saila

**Espediente zenbakia:** KON_IOS_0013 (2021)

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.h artikulua eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3.8 Xedapen Gehigarria

| Ikuskatututakoa | Bete da | Oharrak |
|---|---|---|
| Luzatzearen aldeko proposamen teknikoa dago | Bai | 2024/01/08ko erabaki proposamena |
| Luzapena kontratua burutu orduko planteatu da | Bai | 2024/01/17an bukatzen da |
| Luzapena pleguetan aurreikusi da | Bai | Administrazio-baldintza zehatzen agirien 4. atalean eta laburpen taularen 8.atalean jaso da |
| SPKLak ezarritako kontratuen gehienezko epea errespetatzen da | Bai | Adostasuna dago |
| Organo eskumenduna zuzena da | Bai | Alkatea |

| Ondorioa | Oharrak |
|---|---|
| **Aldeko txostena** | Kontuan izan behar da erabakia hartu orduko kontuhartzailearen fiskalizazio txostena behar dela espedientean, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 4. artikuluaren arabera.<br>Txosten hau oinarritzen da:<br>- Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean (29. artikuluan, 346.3 artikuluan, 2. XGan eta 3. X.G.an)<br>- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamenduan (67.2.e artikulua).<br>- Kontratuaren Administrazio Baldintza Agirietan (pleguen 4. atalean eta laburpen taulako 8.atalean) |

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Izan ere, txosten hau derrigorrezkoa eta ez loteslea da, hori horrela, kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia